

# NOLA BERITU ELKARTEAREN ESTATUTUAK

Estatutuek elkartearen helburuak eta funtzionamendu-arauak jasotzen dituzte, eta, nahiz eta arau juridiko ez izan, bazkideak behartzen ditu borondatez onartu eta beteko zituztela onartu baitzuten elkartean sartean. Elkarteko kide guztiek ezagutu beharko dituzte.

Elkartearen antolamendua eta funtzionamendua arautzen dute, bai biritza osoan, bai jarduerak irauten duen bitartean, barruan, zein kanpoan.

Gutxienez, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako alderdiak jaso behar dituzte.

## ESTATUTUEN ALDAKETA

Aldaketak Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 9. artikuluan araututako ataletako batzuei eragiten dienean, Bazkideen Batzar Orokorrak horretarako zehazki deitutako erabakia hartu behar da. Hau da, estatutuen aldaketa Ezohiko Batzar batean egin behar da.

1.- Proposatutako aldaketekin ordezko **testua egitea**. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkide izenda ditzake, aldaketa proiektua idatz dezaten.

Aldaketa proiektua adierazitako epean idatzi ondoren, presidenteak egingo den lehenengo Zuzendaritza Batzordearen gai-zerrendan sartuko du, eta hark onartu edo, hala badagokio, itzuli egingo du, beste azterketa bat egiteko.

2.- **Ezohiko Batzar Orokorra deitzea** testu berria onartzeko Batzarraren deialdiarekin batera, proposamena bazkide guztiei bidaltzea eta zentzuzko epe bat irekitzea ekarpenak eta/edo zuzenketak egiteko. Horretarako, bazkideei adierazi beharko zaie zuzenketak non eta nori zuzendu. Proposatutako testuari egindako zuzenketa horiek idazkariaren esku egon beharko dute, Ezohiko Batzarra egin baino zortzi egun lehenago.

3.- **Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorreara bidaltzea testua**, egoitza elektronikoaren bidez. Testu berria guraso elkarteko **presidenteak eta idazkaritzak sinatu behar dute orri guztietan** eta, ondoren, pdf formatuan eskaneatu.

4.- **"Estatutuak Aldatzeko Batzarraren Ziurtagiria"** aurkeztu beharko dute, guraso elkarteko idazkariak egina eta sinatua, presidentearen oniritziarekin. Estatutuak aldatzeko erabakia, aldatutako artikuluen edo artikuluen zerrenda, bertaratze-quoruma, bozketaren emaitza eta onespen data jasotzen ditu.

## ELKARTEAREN IZENAREN ALDAKETA

Elkartearen izena aldatu nahi badugu, kontuan izan identifikazio egokia izan behar duela honako helburu hauetarako:

- IKASLEEN GURASO ELKARTEA bat dela esan behar du
- Bereiziko duen izen bat: "AMPA-IGE TXIRIBITA"
- Jarduten duen ikastetxearen izena: HLHI/DBH/Herri Eskola  
XXXXXX

**XXX HLHIko "AMPA-IGE TXIRIBITA"IKASLEEN GURASO ELKARTEA**

Izena ez da itzultzen, berdin-berdin agertu behar da euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan.

Gogorarazten dizuegu elkartearen izena aldatzen bada IFKren txartela eguneratu behar dela Bizkaiko Foru Ogasunaren 036 eredia erabiliz.

## GARRANTZITSUA

- Estatutuen eredia eta estatutuak aldatzeko ziurtagiria gure webgunetik deskargatu ditzakezue: <https://www.ehige.eus/eu/bige-dokumentuak-kudeaketa-eta-antolakuntza/>
- Estatutuen aldaketa xede horretarako deitutako Ezohiko Batzar Orokorrean erabakiko da.
- Estatutuen aldaketa ez da egingo zuzendaritza batzordea eguneratuta ez dagoen bitartean.
- Nahitaezkoa da dokumentazioa PDF formatuan aurkeztea.
- Beharrezkoa da ziurtagiri elektronikoa edukitzea (Izenpe edo FNMT)
- Era berean, Estatutuak barne-erregelamendu baten bidez garatu ahal izango dira, elkartearen funtzionamenduaren alderdi guztiak arautzeko, baldin eta garapen handiagoa eman nahi bazaie. Hemen sar daiteke, adibidez, Zuzendaritza Batzordea zozketa bidez aukeratzen dela elkartekideen artean.